

HERNANIKO PSE-EE-KO UDAL TALDEA:

“EH-k Hernaniko zati batentzat bakarrik gobernatzen du”

“Ateratako boto portzentaiak ez die nahi dutena egin eta herritarren zati batek askatasun gutxiago izanarazteko legitimitaterik ematen.”



PSE-EEko kideak. Ezkerretik: Peñacoba, Morzillo, Huertas eta Etxenike.

KRONIKA udal talde guztiei elkarrizketak egiten ari da, udalaren gestioaren eta, orokorrean, Hernaniren inguruan. PSE-EE-k ez du elkarrizketa zuzenerako aukerarik eman, baina, bere hausnarketak bidali dizkio Kronikari. Hona hemen itzulia:

“EHren udal gobernuak urtebete. Urtebete da EH gobernuan dela. Antzeman da. Ono antzeman ere! Hernani gelditu egin da. 1991an hasi eta udal gobernu tripartitoen garaian mantendu zen hazkunde ekonomikoak eta sozialak sekulako etena izan du; gure ustez oraingo udal gobernuaren gestio ezagatik.

Hirigintza. EHri beldurra ematen dio herria hazteak. Eta hala gerta ez dadin, herriaren berritze urbanistikoari atak ixtea bezalakorik ez dago. *Arau subsidiarioak* gelditu izana adibide garbia da. Aurreko udal gobernuak hasi zen Arauok berrikusten eta orain dena geldirik dago. Industrialdearen bigarren fasea gelditu ez bada, berriz, seguruena proiektua oso aurreratua zegoelako izan da.

Babes Ofizialeko Etxebizitzaren (BOE) inguruko proiektu berriak. Hauek ere

lozorroan daude. Inongo arrazoirik gabe urtebeteko atzerapena daramagu; eta aitzakia beti bera da: lehen aprobatako konbenio edo/eta proiektuak berriz ikusi eta aztertu beharra.

Ah! Eta, zer dela-eta Antziolako B.O.eko etxebizitzak daramaten atzerapenari buruz udalak halako isiltasuna (lehen faseko etxebizitzak aspal-

“Demokrata paketsu asko eta askoren giza eskubideak etengabe zapaldu egiten dira, eta ez dute inoiz EHko gobernuaren babesik jaso izan.”

di bukatu eta entregatu gabe...) Hernaniarrak esplikazio eske ari dira.

Ekipamendu publikoa. Non gelditu da Atsegindegiko urbanizazio proiektua, Hernani zabaltzeko klabea izango zena? Denok gara lekuko: **asfalto gordina. Aparkalekuak... bai beharrezkoak dira,** baina, konponbide hobe-

rik ez balitz, gure inguruko hirietan ez litzateke hainbeste kale peatonalizatuko. Eman zaion konponbidea merezi al du Hernaniko zoru urbano onenak? Non gelditu da aurreko udal gobernuak aprobatako urbanizazio proiektua? edo beste helburu batzuren bila al gabiltza?

Eta abertzaletasun radikalaren helburu partidistetarako bideratzen diren diru publikoak? Legezkoa eta bidezkoa al da nahi den adinako gehiengo absolutoa izanagatik?

EH-k herriaren zati batentzat bakarrik gobernatzen du. Ateratako boto portzentaiak ez die nahi dutena egin eta herritarren zati batek askatasun gutxiago izanarazteko aukerarik ematen. Demokrata paketsu asko eta askoren giza eskubideak etengabe zapaldu egiten dira, eta ez dute inoiz EHko gobernuaren babesik jaso izan. Giza eskubidetaz hainbeste hitzegiten badute, non daude abertzaleak ez diren giza eskubideak? Zer demokrazia egon behar du herriaren herritarrek propio hartarako hautatutako oposizioak bere lana egiteko askatasunik ez badu? Hauze da gure ustez, herri honetan benetan grabea”. □ *Erredakzioan itzulia.*

KULTUR ETXEA

Hurrengo astea geratzen da ikastaroetan izena emateko

Bihar zortzi amaituko da izena emateko epea.



Kultur etxean urtero izaten dira ikastaroak.

BITERI kultur etxeak helduentzako eta haurrentzako ikastaroak jarriko ditu martxan aurrean. Haurrek dantza kontemporanea, pintura-marrakilaritza eta antzerki-zirkoa-mimoa dituzte aukeran. Helduek berriz, pintura, keramika, dantza kontemporanea, taichi, yoga, ahots teknika,

eskulanak, altzariak zaharberritzea, egur taila, saloiko dantzak, saskigintza, argazkilaritza, eta pintura sedazko ohialean.

Izena emateko Biteri kultur etxetik pasa. Gutxiengo soldata baino gutxiago kobratzen duten familiakideek prezio berezia dute. □

Jose Jabier Zabaleta ‘Baldo’ omenduko dute igandean

Hamar urte preso daramatzala-eta egingo diote.

JOSE Jabier Zabaleta *Baldori* omenaldia egingo diote, igandean arratsaldeko zazpitan Tilosetan. Baldok hamar urte daramatza espetxeratuta eta gaur egun Valdemoron dago. Omenaldia Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatu du. Az-

ken aldiz, joan den urteko uztailean egon zen Hernanin Baldo; EH-ko zerrendetan zegoen eta E-13ko udal hauteskundeetan zinegotzi aukeratua izan zen. Uztailean inbestidura saioan izan zen. Kargua utzi egin behar izan zuen gero. □

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

00-01 IKASTURTEA:

Maila guztiak. Ikastaro bereziak

Erritmoak

Goizez, arratsaldez eta gauez.

Matrikulaldia

Irailaren 22ra arte.

Galde ezazu euskaltegian

(Biteri Kultur Etxean)!

☎ 943 331896

e-mail: euskaltegi@hernani.net

HERNANIKO UDALA



Allianz

ASEGURUAK

Agustin Ezponda
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326
656 735 109

ERRIOGUARDA
E N E A
Iturriaga Kalea 10. Tel.:(943) 33 02 91
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

SANDIUSTERRIKO ZAHARREN EGOITZA

Superiora Tolosara doa eta hangoa etorriko da

Sor Doloresek sei urte egin ditu Hernanin eta gaur bertan joango da.



Adineko gizon-emakumeak Sandiusterrin kanpoan.

ZAHARREN Egoitzak superiora berria izango du bihurtik aurrera: Sor Maria Angeles. Sor Doloresi, sei urte eta gero, Tolosara joatea egokitu zaio. Bere lekua orain artean Tolosan bertan zegoenak beteko du. Superiora berriak ere ezagutzen du Hernanin, bera ere hemen ibilia baita erizain lanetan, hara joan aurretik.

LANGILEEN AGURRA
Pertsona maitatua zen Sor Dolores. Zahar etxeko batek "guk asko nahi diogu" esan dio Kronikari. Langileek, berriak, beren agurra eta esker ona azaldu diote lerro batzuetan: "Agur Sor Dolores, beti geldituko da gure barruan egoitzako langileekin eta zaharrek izan duzun tratatu gozoa eta atsegina." □

POLITIKA

Ezker Abertzalearen Batasuna prozesuko bilera bihar

EZKER abertzale barruan ekainean sortutako eztabaida prozesua da *Batasuna*. Txosten politikoak laster aurkeztuko direla-eta, pixka bat girote aldera, bihar bilera izango dute goizeko 10:00etan hasita Biteri kultur etxean. Ezker abertzaleko jendeari dei egiten diete bere kezak azaltzera *Mintegi* honetara ager daitezten. □



Juanjo Uriak, Mikel Peruarena, Niko Elizondo eta Oihane Bakedano Batasuna prozesuaren aurkezpenean, Sandiusterrin.

DATORREN ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

FUTBOLA

- Gorengo maila: Zubipen 16:30etan.
Hernani - Zumaiako
- Emakumezkoen liga: Asti Txikin 18:30etan
Zarautz - **Hernani**
- Gazteen liga nazionala: La Sierben 17:00etan.
Retuerto - **Hernani**
- Gazteen ohorezko liga: Argixaon 19:00etan.
Urola - **Hernani**
- Gazteen bigarren maila: Zubipen 18:30etan.
Hernani - Lasarte
- Haurren ohorezko liga: Zubipen 11:00etan.
Hernani - Eibar

PELOTA

- Eskuz binaka Kadeteak: Amarako frontoian 11:00etan
Suharri-Irazustabarrena, Iñigo-Leonet

- Paletan neskak. Nagusiak: Kiroldegian 16:00etan.
Hernani (Irene-Goiatz) - Real Sociedad
- Hernani (Eli - Amaia)** - Altzatarra
- Pala motza, Hernanin jarraian.
Hernani (Jesus Mari - Manu) - Anoeta
- Herri arteko txapelketa: Iruritako frontoian 16:30etan
Baztan - **Hernani**

IGANDEA

FUTBOLA

- 3. maila, Zubipen 18:00etan.
Hernani - Lagun onak
- Kadeteen ohorezko liga, Gal-en 10:15etan.
Real Union - **Hernani**
- Kadeteen bigarren maila, Allurralden 10:45etan.
Euskalduna - **Hernani**

HITZ BITAN

✓ MOLOTOF IRRATIA (FM 99.2)

Gaur bukatuko da irratsaioa egin nahi dutenentzat izena emateko epea. Urteko programazio berria ia osatua dago eta gaur osatuko da guztiz. Ordua hartzeko 943 556346 telefonora deitu goizean.

✓ PELOTA

Herri arteko txapelketan Hernanik Iruritan jokatu du bihar 16:30etan Baztanen kontra. Lehengo asteburuan 1-2 galdu zuten Hernanin (Kadeteek irabazi zuten eta Jubenil eta Afizionatuek galdu), baina saiatuko dira buelta ematen.

✓ IKASTAROAK

DBHko titulurik ez dutenentzat ikastaroak antolatu ditu Ongintzako patronatuak. 1979 eta 1984 artean jaio diren gazteentzako dira, eta aukera zabala da. Izena emateko azken eguna gaurkoa da. Interesatuak Ongintzako bulegoetatik pasa edo 943 557854 telefonora deitu.

✓ UDAL AURREKONTUAK

Gaur udaletxeko langileek eta nekazariak dute bilera. Udaletxean bertan izango dira: udaletxeko langileena zortzietan eta nekazariena bederatzietan. Aste honetan bukatuko da lehen bilera fasea eta datorrenean hasiko da bigarrena. □

HERIOTZAK

Juan Ignacio Lasa Garmendia jauna.

Asteazkenean hil zen 60 urte zituela.
Hileta elizkizunak gaur arratsaldeko zazpitan Parrokian

Maria Kruz Uriak Ezenarro anderea.

Ostegunean hil zen.
Hileta elizkizunak gaur arratsaldeko zazpitan Parrokian

AGENDAK

ERAKUSKETAK

Hernaniko Udaletxea:
mende bat bizirik
Udaletxean bertan,
18:00-20:00.

Kuba orain hamar urte.
Argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

Juan Ramon Perez
Oreretarraren Kuadroak
Txema tabernan.

Argazki erakusketa

didaktikoa

Tolareak antolatuta
Biteri kultur etxean

Argazki erakusketa
AEKri buruzkoa
Garin tabernan.

Diapositiba emanaldia
AEKri buruzkoa
Urumea tabernan
20:00etan
Aralar taberna kanpoan
23:00etan

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Gomez
Nagusia, 15
☎ 943 554892
- ▶ Gaeuz: Gomez
Nagusia, 15
☎ 943 554892

IRAGARKI

MERKEAK

Neska bat behar da arratsaldetan haur bat zaintzeko.

☎ 943-551092



MUEBLES HERNANI

Esposizio aldaketa.
Beherapen bereziak.

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI